

# Asisko gutuna

2014ko Abendua.

2. printzipioa.

Eguneroko bizimodua: barnerantz, umiltasuna

74. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Bilatzaileak gara. Hori da gure nortasuna. Hori da gure irrika. Eta Frantziskorena, Klara-rena, eta bizitzaren, pozaren, zentzuaren, maitasunaren zitzada nabaritu duten guztiena. Barneko intuizioz ohartu baikara atsedetik ezin dugula hartu Biziaren Jaunarekin aurkitu arte.

Jarrai dezagun bada tinko geure bilaketan.

## Gogoetarako gaia

### *Bila ibiltzeko espiritua*

Erakargarriak gertatzen dira pertsona bilatzaileak, zerbait berria (nortasuna, zentzua, harremana, espiritualtasuna...) bilatzeko bideari ekiten dioten gizon-emakumeak, ihes eginez ohikoari eta aurrez fabrikatuari. Gaztaroan, norberaren nortasunaren bila ibiltzean, bizitzen da ezaguna denarekin hausteko premia hori, haztamuka aztertuz nor den norbera, nor adiskideak, zein den norbere tokia gizartean eta munduan. Geroagoko aldiaren ere nor bere buruari galdetzen dio zein den bizi duen ororen funtsa eta bizitzeko falta zaionarena. Jada ez ditu nahiko topikoak eta orain arte balio izan dioten erantzun eta erreferentziak. Are aitortzen du aspalditik daramala berekin, dena distirarik gabe bizi arazten dion barruko asagabetasuna. Une horretaraino argi egin dion zentzua motx gelditzen zaio eta ezin du horrela jarraitu. Horrela jarraituz gero, iruzur egingo lioke bere barruari, berea duen errealitate egiazkoenari.

Eta hasten du bilaketa. Lehen ere hasia zuen, baina orain libreki eta jabetuz egiten du. Apaltasun-ariketa bat da. Ez da segurantza-faltan denaren bilaketa gaixotia, inon atsedetik aurkitzen ez duenarena; ez eta nerabearen bilaketa ere, bere buruaz ezer ez dakienarena; ez eta berri-berri denaren kontsumo konpultsiboa ere, hain modan dagoena. Apaltasunaren fruitu den bilaketa-modu honek norberaren sakon-sakoneraino murgilarazten du, bai eta ondoan dituen pertsonen eta inguruko errealitateen sakoneraino ere, beti sostengu, argi eta zentzu sakonagoa eman diezaion egia handiago baten bila.

Azpi azpian, kontrola daitekeen guztitik harat, existentzian sostenga gaitzan norbait bilatzen da, gure izateari eta existentziari oinarri eman diezaion norbait, hondotik hondoraino maita gaitzan norbait; Jainkoa bilatzen da, bizia ematen diguna. Sinesteduna Jainkoaren bilatzaile da, eta Jainkoak aurkitua izan dena.

## Ebanjelioko pasartea: Jn 1, 35-39

Hurrengo egunean, berriro ere bertan zegoen Joan bere bi ikaslerekin. Jesus handik igarotzen ikusirik, esan zuen: “Hona hemen Jainkoaren Bildotsa”. Bi ikasleek, hori entzutean, Jesusi jarraitu zioten. Jesusek, atzera begiratu eta ondoren zetozkiola ikusirik, galdetu zien: “Zeren bila zabilzate?” Haiek erantzun: “Rabbi, non bizi zara?” (Rabbik «Maisu» esan nahi du). Jesusek esan zien: “Etorri eta ikusi”. Joan, non bizi zen ikusi eta berarekin gelditu ziren egun hartan. Arratsaldeko laurak aldean zen.

## Frantziskotar espiritualtasuna

«Esperantza horrekin inoiz baino alaiago agertzen zen. Bere poz berriaz galdetzen ziotenei, hauxe erantzuten zien: “Badakit printze handia izango naizela”. Ezkutari bat lagun harturik, zaldi gainera igo eta Pugliako lurraldera abiatu zen. Bere ibilaldiaz beste ardurarik gabe, Spoleto hirira heldu zen, eta gaua egin zenean, lotara erretiratu. Erdi lotan zegoela, nora joan nahi zuen galdetzen zion ahots bat entzun zuen. Hark bere asmo guztiak zehatz-mehatz agertu zizkion. Orduan, ahotsak esan zion: “Nork egin diezazuke on gehiago, nagusiak ala morroiak?” “Nagusiak” erantzun zion. Eta ahotsak: “Zergatik, bada, morroia aukeratu nagusia utziz, eta menpekoa printzea utziz?” Frantziskok, orduan: “Jauna, zer nahi duzu nik egitea” “Itzul zaitetz zeure jaioterrira —erantzun zion ahotsak— eta bete Jaunak agertuko dizuna”».

Frantzisko zerbait handia izatearen bila dabil: “Printze handia izan nahi du”; ez da konformatzen merkatarari izatearekin. Bilaketa, hasieran, handitasun ametsetan oinarritua dago. Baina Jainkoa Frantziskoren bilaketaz baliatzen da hura bilatzeko; haren ametsetan sartzen da, bere ametsa hari kontatzeko; haren egitasmoak astiro entzuten ditu, hura gero bere ahotsa entzutera gonbidatzeko. Gure bilaketa guztiak geure bihotzaren ezinegonaren sakonaz zaizkigu mintzo.

## Otoitza

Jauna, Jauna, nola ezkututzen zara nigandik era honetan?

Neure joran guztiez dei egiten dizut.

Alde guztietarantz bilatzen zaitut.

Gutziz ezindurik degizut oihu.

Neure burua eskaintzen dizut osoro ...

Zer gehiago nahi duzu?

Agian azkengabea egin behar al diozu uko niri entzuteari?

Ene seme, uztazu era horretan aztoratuta ibiltzea.

Noiz ulertu behar duzu

ez zarela zu nire bila zabiltzana,

Ni naizela, baizik, betitik dei egiten dizudana;

ez zareka zu otoitz egiten didazuna,

Ni, baizik, zuk entzuna izaten atergabe saiatzen naizena?;

ez zarela zu desiratzen nauzuna,  
ni, baizik, nekatu gabe zure atzetik nabilena,  
ez zarela zu dei egiten didazuna,  
Ni, baizik, gau eta egun zure atea jotzen du-  
dana?

Zure erreguak ez dira

Nik zuzentzen dizkizudanan erantzun besterik.

Izan ere daukazun Niganako gosea  
sekula ez da parekatu ahalko  
nire zukanako gosearekin.

Zuk duzun Nire uraren egarria

ez da sekula aseko,

ez baduzu, isiltasunean, Nire iturritik,

besterik irrikatu gabe,

edatera etortzen ikasten.

## Gutuneko azken hitzak

“Basahuntza ur bizien irrikaz bezala, halaxe ni Zure irrikaz, ene Jainko”. (42. salmoa)

## 2014ko abendua eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate abenduko erreferentzia guztiak:

1 Mt 8, 5-11

8 Lk 1, 26-38

15 Mt 21, 23-27

22 Lk 1, 46-56

29 Lk 2, 22-35

2.Lk 10, 21-24

9 Mt 18,12-14

16 Mt 21, 28-32

23 Lk 1, 57-66

30 Lk 2, 36-40

3 Mt 15, 29-37

10 Mt 11, 28-30

17 Mt 1, 1-17

24 Lk 1, 67-79

31 Jn 1, 1-18

4 Mt 7, 21.24-27

11 Mt 11, 11-15

18 Mt 1, 18-24

25 Jn 1, 1-5.9-14

5 Mt 9, 27-31

12 Mt 11, 16-19

19 Lk 1, 5-25

26 Mt 10, 17-22

6 Mt 9, 35-10, 1.6-8

13 Mt 17, 10-13

20 Lk 1, 26-38

27 Jn 20, 2-8

7 Mk 1,1-8

14 Jn 1,6-8.19-28

21 Lk 1, 26-38

28 Lk 2, 22-40

Abenduko otoitzaldia 18an izango da.